



## Elkarrizketa Sarrikoko ikasle ohi Aitor Irastorza Fadriqueri

Aitor Irastorza Fadriqueri, Sarrikoko Ekonomiako Graduoko ikasle ohiak, 2016/2017 Promozioan Sari Berezia jasotakoak, Ramón Areces Fundazioko prestigio handiko Beka lortu du Graduondoko Ikasketak egiteko, XXXII. Deialdian, Gizarte Zientzietan Atzerrian Ikasketak Zabaltzeko. Essexeko Unibertsitatean (Erresuma Batua) dago orain Aitor, Ekonomiako Ikerketa Masterra egiten.

Kaixo Aitor, nola bizi duzu etxetik urrun egotearen esperientzia hori?

*Aberasgarria eta aldi berean gogorlan egin beharrekoa. Esperientzia paregabea da, pertsona bezala hazten laguntzen ari zaidana; nire beldurrei*

*aurre egiten, nire gaitasunak goren mailara baliatzen, eta nire ahuleziak lantzen laguntzen ari zait. Maila pertsonalean, nazionalitate desberdinetako pertsonak ezagutzeak zein aberasgarria den nabarmenduko nuke. Ikasketak direla-eta, gogorlan egin behar izateak antolatzeko eta iraunkorra izateko gaitasuna garatzea eskatzen dizu. Gainera, aukera bikaina izaten ari da nire ingelesez hobetzeko.*

Ondo prestatuta zatozela uste al duzu, zure ikasketak UPV/EHU n egin eta gero?

*Bai. UPV/EHUk oinarri sendo bat eman dit eta hori abiapuntu ona da nire ustez maila handiko unibertsitateetan ikasketak zabaltzen jarraitze-*

*ko. Bost urteko ikasketak izan dira guztira, lau Ekonomia Graduoko ikasle gisa eta bat Master in Economics Empirical Applications and Policies-eko ikasle gisa. Gainera, azken hiru urte hauetan zortea izan dut, unibertsitateko departamentu desberdinekin lan egiteko aukera izan baitut, eta horrek eraman nau ikerketaren munduarekin aurreneko kontaktu bat izatera.*

Zer gomendatuko zenieke Sarrikoko ikasleei?

*Unibertsitateari ahalik eta etekin handiena ateratzen saiatzea: proiektuetan sartzea, klasean parte hartzea, ikuspegi kritiko bat garatzea, gogor egitea beharrezkotzat jotzen dutenean, ekar-*

*pen konstruktiboak egitea, egunero lan egitea... Azken batean, unibertsitateko kide sentitzea. Uste osoa dut horrela bakarrik izango garela gai guztion artean unibertsitate hobeto bat eraikitzeko.*

Txori txiki batek esan digunez ikasle ona izateaz gain bertsolari trebea zara: Ausartuko zinateke Sarrikoko zure ikas-kide izandakoei bertso bat botatzera?

*Doinua: Egun lanerat abiatu zait Neurria: Zortziko handia Bakoitzak dauka bere ametsa, zuk zurea, nik nirea. Hori lortzeko sekretua zein ote da adiskidea? Hauxe da nire aholku xume, ta zuentzako idea: eguneroko pauso txikiez egiten dela bidea.*

# Heziketa Duala Sarrikon

Bizkaiko Enpresarien Konfederazioak (CEBEK) eta Ekonomia eta Enpresa Fakultateak heziketa duala martxan jarriko dute Sarrikon, UPV/EHUk adostutako araudi esparruaren barruan. EAZ-Gk (Sarriko) ibilbide berria dauka; horren bidez, ikasleei ikasgelako prestakuntza eta enpresetako egonaldiak, ikasteko leku gisa, uztartuko dituen prestakuntza esperientzia eskainiko zaie.

BBK-k ekimena babesten du, finantzaketa akordio baten bidez; hala, heziketa dualeko programara begirako lehenbiziko BBK-CEBEK laguntzen deialdia egin dute.

Programa honek agerian jartzen du BBK, CEBEK eta

UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen kezka, gazte unibertsitarioen

Ekonomia talentua Bizkaiko enpresetan sartzeari eta titulatzeko zorian dauden gazteei pres-

takuntza praktikoa eskaintzeari dagokionez.

Fakultateak eginiko aurre-tiazko hautaketatik (2018 amaitsu baino lehen) azkenen enpresek hautatutako ikasleek (hirugarren mailakoak) heziketa dualeko prestakuntza jasoko dute, 2020ko uztail/abuztura arte. Enpresetako egonaldiak gutxienez 900 ordukoak izango dira, eta gehienez 1.200 ordukoak. Enpresak ikasleari egingo dion ekarpena ez da inoiz LGS (lanbide arteko gutxienezko soldata) baino txikiagoa izango, enpresan egingo duen benetako lan denboraren arabera.



CEBEK, BBK, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (UPV/EHU)

## Sara de la Rica Zientziaren aldeko GADEA Fundazioko Aholku Batzorde Zientifikoan sartu da, Gizarte Zientzien arloan

Sara de la Rica, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Ekonomia Analisiaren Oinarriak II Saileko katedraduna, Zientziaren aldeko GADEA Fundazioko Aholku Batzorde Zientifikoan sartu da, Gizarte Zientzien arloan.

Gadea Fundazioaren helburua da Zientziaren, Teknologiaren eta Berrikuntzaren Espainiako Sistemari hobetzen eta aurrera egiten laguntzea, arreta berezia emanez ikertzaileek, unibertsitateek, ikerketa zentroek eta enpresek duten zereginari. Aholku Batzorde Zientifikoaren xedea da Fundazioaren Patronatuan parte hartzea eta organo horri laguntza

eta aholkularitza ematea. Batzordeko kideak beren zientzia, administrazio edo kudeaketa lanarengatik zientziaren arloan ezagunak edo garrantzitsuak diren pertsonen artean aukeratzeko dira.

*María José Gutierrez*



## Erasmus 2018/19

Irailaren 7an ongietorria egin zitzaion 2018/19 ikasturteko lehen lauhilekoko trukeko ikasleei. Ikasleek GAUR eta EGELA plataformen erabilerari buruzko informazio hitzaldi bat jaso zuten (bertan eman zizkieten horietan

sartzeko kodeak), eta ikastegian zehar bisitaldia eskaini zitzaion. Aurten hainbat herrialdetatik etorritako 100 ikasle baino gehiago ditugu gurekin, baina gehienak alemanak eta hegokorerrak dira. *Aitor Ciarreta*

## Innovation Forum Euskadi

Ekonomia eta Enpresa Fakultateko eta UPV/EHUko MBAe3 masterreko ikasle talde bat (Sarriko Link UPV/EHU) Euskalduna Jauregian, Osakidetza, Athleticek eta IMQk proposatutako osasun erronkak konponduz.



# “How an Analysis of Basque Terrorism Helps Economists Understand Brexit” The Wall Street Journal

Azaroaren 7ko The Wall Street Journal aldizkarian Sarrrikoko ikasle ohi bat agertu zen, Alberto Abadie, gaur egun MITeko ekonomia irakaslea (Professor of Economics) dena. [Artikurako esteka] Elkarrizketan, Jason Douglas kazetariak duela hamabost urte beste ikasle ohi batekin batera (Javier Gardeazabal, gaur egun Sarrrikoko irakaslea) sortu zuen metodo bat aipatzen du. Metodo hori terrorismoak Euskal Herrian zekarren kostu ekonomikoa kalkulatzeko asmatu zuten, eta gaur egun beste ekonomista batzuek erabiltzen dute Brexitak Erresuma Batuari ekarriko dion kostu ekonomikoa kalkulatzeko. [Artikurako esteka] Brexitaren kasuan, Benjamin Born, Gernot J. Müller, Moritz Schularick eta Petr Sedlá ek ekonomistek kalkulatu dute-

nez, jendeak alde bozkatu izan ez balu, bi urte beranduago Erresuma Batuari barne produktuko gordina % 2 handiagoa izango litzateke. Elkarrizketa horretan, Albertok adierazten du kalkulak behin-behinekokoak direla eta Brexitaren ondorioak hasi besterik ez direla egin. Aipatzen du, halaber, metodoa beste zenbait fenomenoren ondorioak kalkulatzeko ere erabili dela: Kaliforniako tabakoaren kontrako legeen eragina, Alemania bateratzaren kostu ekonomikoa, prostituzioa legeztaezaren ondorioak eta armak eramateko eskubidearenak; baita ekonomiaren, politika zientziaren, epidemiologiaren, demografiaren, ingurumenaren eta beste zientzia batzuen arloko beste kasu asko aztertze ere.

*Javier Gardeazabal*



*Alberto Abadie, Professor of Economics, Massachusetts Institute of Technology.*

## Biscay Bay Startup Campus

Urriaren 1etik 7ra bitartean “Biscay Bay Startup Campus” ekitaldia egin zen Bizkaia Aretoan. Ekitaldi hori UPV/EHUren ekintzailatza ekosistemaren barruan sortu zen, Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen babesarekin; izan ere, hauen artean antolatu zen: Bizkaiko Campuseko Kanpo Harremanetarako zuzendari eta Zitek-eko arduradun Noemí Peña (Fakultateko irakaslea), Sarrrikoko ekintzailatza gelan dagoen Walden startup-a eta Bilbao Valley elkarte (horren sustatzaileak Zitek ekosistemaren parte dira).

Biscay Bay Startup ekiteko go-go duten ikasleen eta gazteen urteroko topagune bat izateko

asmoz sortu zen, eta lehen edizio honetan emakumezkoen lidergoa izan zuen ardatz. Egutero 200 pertsona inguru bertaratu ziren; horietatik 71 Eko-



nomia eta Enpresa Fakultateko eta bertako Ekintzailatza Mas-



terreko ikasleak ziren. Bertan, askotariko ekintzetan parte har-

tzeko aukera izan zuten: Speed Networking saioak, jarduerak, erakusketak, hainbat sektoretako adituek emandako hitzaldi inspiratzaileak, inkubagailuen eta azeleragailuen aurkezpenak, ekintzaile taldeak, etab.

Gainera, ideia berritzaileak saritu nahi izan ziren, eta, horretarako, hiru sari banatu ziren. Irabazleetako bat Alejandro Padró izan zen, Sarrrikoko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko ikaslea. 2.500 euroko saria lortu zuen bere Marshall proiektuarengatik, baita adituen aholkularitza jasotzeko eta urtebetez Ziteken haztegi-tako batean inkubazio gune/bulego bat izateko aukera ere.

*Noemí Peña*



# Enpresa Etikaren Arloko Inkerketaren I. Saria: Leire San-Jose (UPV/Ehu) eta Jose Luis Retolaza (Deustuko Unib.)

Leire San-Jose eta José Luis Retolazak irabazi dute Enpresa Etikaren arloko Inkerketaren I. Saria. Lehenengoa Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Finantza Ekonomia II Saileko irakasle titularra da (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, SARRIKO) eta Ethics in Finance and Social Value (ECRI) ikerketa taldea zuzentzen du ([www.ehu.eus/ecri](http://www.ehu.eus/ecri)). Bigarrena, berriz, ekonomia irakaslea da Deustuko Unibertsitatean.

Hau da lehiaketara aurkeztu zuten lanaren izenburua: "Contabilidad social para la sostenibilidad: un

instrumento para facilitar la ética en la empresa" (Iraunkortasunerako kontabilitate soziala: enpresaren barruko etika errazteko tresna). Lan hori aukeratua izan zen beste berrogeita hamar bat lanen artean, eta balorazio positiboa jaso du, batetik, kalitate onekoa delako, eta, bestetik, gizartearen modu praktikoa aplikatu daitekeelako. Erabat gainditzen du enpresen beharren eta ekarpen akademikoaren arteko jautzia, eta hori erroka handia da ikerketa akademiko ororentzat. Artikuluak azaltzen du posible dela erakunde baliu soziala diru bihurtzea (gizarte



erantzukizuna bere adierazpenik gorenean), eta zertarako egin daitezkeen. Epaimahaiaren esanetan, "lan honek egiaztatzen du posible dela eta interesgarria litzatekeela kontabilitate soziala egitea mota guztietako erakundeetan. Horrez gain, esplorazio modura, zenbait

proposamen egiten ditu enpresak optimizatzeko eta iraunkorrak izan daitezela lortzeko".

Saria Bankinter Consumer Finance-ek eta Comillasko Unibertsitateak eman zieten 2018ko ekainaren 21ean.

*Leire San José*

## Euskaraldia Sarrikon



Obra "Txintxo Ibili!!" para Euskaraldia de the one and only "Barry Manley".

2018ko Azaroaren 23tik Abenduaren 3ra, Euskaraldia izan dugu Sarrikon lehenengo aldiz, UPV-EHU osoan eta gizartearen bezala. Euskaraldia urtero ospatuko da, eta urtean urtean konpromiso zehatzagoak eta sakonagoak eskatuko zaizkio Sarrikori euskara bultzatzeko. Euskaraldiari ongietorria emateko, azaroaren 22an Barry Manley artista irlandarraren humorezko bakarrizketa izan genuen, Txintxo Ibili!!! izenekoa, Sarrikoko Areto Nagusian.



## Finantza hezkuntzaren eguna

Gure fakultatean ekitaldi bat egin zen Ekonomisten Euskal Elkargoak finantza hezkuntzari buruz egindako azterlanaz abertzeko. Azterlan horretan elkarriketatutako pertsonen % 90ek uste dute ikasketa plan guztiek barne hartu behar dutela guxtieneko finantza prestakuntza bat, nahitaezkoa. Beharrezkoa litzateke DBHn eta Batxilergoan oinarritzeko zeinbat ezagutza ematea alderdi hauen inguruan: finantza plangintza, «ekonomiarako etika», egungo sistema

ekonomikoaren alternatibak eta merkatuan eskuragarri dauden finantza produktuak.

Guztira 560 pertsonak hartu dute parte inkestan. Horietatik, 346 ekonomistak dira eta 270ek lotura dute irakaskuntzarekin. Horrez gain, azterlanean parte hartu dute zenbait IGEk, irakasleak, ikasleak eta sindikatuk.

Azterlanaren laburpena banatu zen Fakultatearen sarreran, Jorge Magoaren laguntza entrete-nigarriarekin.

## Cicerone

Iragan azaroaren 29an Nazioarteko eta Mugikortasuneko Dekanordetzak aitortpena egin zien Cicerone-bulegoa programan parte hartu zuten

ikasleei: Eugenia Garay, Nahia García, Kai Sánchez eta Liujia Ye.

Programa honek Fakultateko lau ikasle aukeratzeko mugikortasuneko ikasleei zeregin administratiboetan laguntzeko. Mugikortasuneko ikasleak asko estimatzen dute Ciceronen ekarpena.



## Spanish Network In Macroeconomics

Berriki sortu da Spanish Network In Macroeconomics sarea, unibertsitate hauetako (sareko nodoak) makroekonomiaren arloko ikertzaileak biltzen dituena: Alacant, Bartzelonako Autonomoa, Bartzelona, Madrilgo Karlos III.a, Madrilgo Konplutentsea, La Laguna, Nafarroa, Euskal Herria, Nafarroako Publikoa eta Vigo.

Sare horren helburua da makroekonomiaren arloko ikertzaileen artean ezagutza trukatzea eta lankidetzaz zientifikoa sortzea. Beste jarduerak batzuen artean, sarearen barnean workshop bat antolatuko da urtero. Hurrengo Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan izango da, 2019ko urriaren 3an eta 4an. Ekonomia Analiaren Oinarriak II Saileko irakasle Jesús Vázquez da Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) nodoaren ordezkaria.

María José Gutierrez

## UPV/EHUko ikasleak UAMeko Eztabaida Txapelketa Nazionaleko txapeldunorde

Urriaren 28an, Euskal Herriko Unibertsitateko Eztabaida Elkarteko (ADUEEE) kide Andrés Hombria eta Borja Díaz Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Eztabaida Txapelketa Nazionalean (Britainia Handiko Parlamentuko eredu) hirugarren edizioako txapeldunorde izendatu zituzten, hasiberrien kategorian. Txapelketa urriaren 26tik 28ra bitartean egin zen, eta finalaren aurretik sailkatze-ko 6 txanda egon ziren.

UPV/EHUko Eztabaida Elkarteko kide diren heinean (elkar-teea ikasle guztiei irekita dago), parte hartzaileek oratoria eta eztabaida teknikak lantzen di-

tuzte, herrialde osoan zehar antolatzen diren txapelketa nazionaletan parte hartzeko. Ikasleek txapelketetan parte hartu ahal izaten dute UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateak ematen dituen diru laguntzei esker. Horien bidez, Fakultateko ikasleek lankidetzaz jarduerak, lehiaketa akademikoak, biltzarretarako bertaratzeak eta ikaslearen hazkuntza akademiko eta pertsonalera eta ikasleak gizartearen alde egiten duen lanera bideratutako bestelako jarduerak ordaindu ahal dituzte.



## Bilbao Gazteak Balioak Martxan



Gure Fakultateko IGONE PINAR DELGADO ikasleak (EAGko 4. Kurtsoa), Grupo Igurcon enpresa-praktikak egin ondoren, gizarte-berrikuntza proiektu batean hartu du parte "TRANSFORMANDO ZORROZA JUNTOS" proiektuan hain zuzen ere (bideoa: <https://vimeo.com/292680179>).

Igonek ekarpen pertsonala egin zion proiektuari eta Bilboko Udalak antolatutako lehiaketara (BILBAO GAZTEAK BALIOAK MARTXAN) aurkeztu zuen, Eider Gonzalo, Liujia Ye, June Lázaro eta Camila Manriquerekin batera (hauek ere Fakultatekoak).

Unibertsitate kategoriako lehenengo sarietako bat irabazi zuten.

## Aktuariotza eta Finantza Zientzietako Masterrereko ikasleei diplomak banatzeko ekitaldia

2018ko urriaren 9an, EAEko I. Agers Biltzarraren barnean, diplomak banatu zitzaizkien UPV/EHUren Aktuariotza eta Finantza Zientzietako Masterrereko lehen promozioako ikasleei. Promozio hori 2016an hasi zen Masterra egiten. Diplomak Masterraren arduradun J. Iñaki De la Peñak eta UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko dekanok Jon Barrutiak banatu zituzten.

J. Iñaki De la Peñaren hitzetan, master gisa lehen promozioa bada ere, aktuariotza ikasketak 1915etik eskaintzen dira Espainian eta 1920tik Bilbon: "ia 100



urte dira lehen euskal aktuarioak mundura atera zirenetik". Ikasketak horiek etapa asko izan dituzte eta gaur egun 2 urteko master bat osatzen dute. "Horri esker, unibertsitatearen eta enpresaren arteko harremana nahitaezkoa eta etengabea da, eta hori da, hain zuzen, master honen bereizgarria.

Aipatzekoa da enpresa eta profesional ugari laguntzen dutela master ofizial honetan".

"Adibide asko jar daitezke aktuarioak eta aktuariotza ikasketek arriskuaren gerentzian duten parte-hartzeari dagokionez. Baina ezaugarri bat dute komunean: aktuarioak zenbakia jartzen dio arriskuari eta baloratu egiten ditu horren eragina eta estaldura. Eskari handiko lanbidea da, goranzko joera duena, eta horren adierazgarri da zer-nolako garrantzia duten gaur egun aktuariotza eta finantza zientziek".

Bestetik, hau adierazi zuen UPV/

EHUko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko dekanok Jon Barrutiak: "graduondoko prestakuntzak oro har, eta prestakuntza profesionalizatzaileak edo jardura erreserbatzekoak zehazki, nabarmen areagotzen du ikasleen enplegarritasuna. Zehatzago esanda, gure arloan, masterra egiten duten graduondok % 90eko enplegarritasuna dute, eta masterrik gabeek % 70ekoa. Ikuspegi kualitatiboago batekin, esan dezakegu graduondoko batekin eskura daitekeen enplegua doia izan ohi dela gradu batekin eskuratzen dena baino".

Iñaki De la Peña





## Ekonomiaren Irakaskuntzari Buruzko VII Jardunaldiak

Urriaren 11n Ekonomiaren Irakaskuntzari buruzko VII. Jardunaldiak egin genituen. Jardunaldi horietan ekonomiaren arloko irakasle guztiei zuzendutako hausnarketarako espazio komun bat sortzen da, izan irakasleak Bigarren Hezkuntzako ikastetxetakoak izan uni-bertsitatekoak. Foro horrek bi helburu nagusi ditu:

- Ekonomiaren eta enpresaren arloko irakasleei zientifikoki eguneratzen laguntzea.

- Baliabide eta metodologia didaktiko aktiboak erabiltzen laguntzea. Hartara, irakaskuntza esperientziak elkartrukatuz, jardunaldi hauek irakaskuntzaren arloko etengabeko prestakuntza eta hobekuntza sustatzen dute.

Hauek izan ziren hizlariak:

Javier Bucos. Ntra. Sra. Del Carmen ikastetxeko ekonomia eta matematika irakaslea.

Irati Cifuentes. Mugarik Gabeko Ekonomistak.

Arantza Ugidos. UPV/EHUko irakasle titularra.

Juan Carlos de Margarida. REDI-Ekonomista Irakasle eta Iker-tzaileen Erregistroko presidentea.

Estrella Sánchez. Bigarren Hezkuntzako ekonomia irakaslea. CODIko kidea (Ekonomisten Euskal Elkargoko irakasle eta ikertzaileen komunitatea).

Jon Barrutia dekanok eman zion hasiera eta amaiera jardunaldiari.

## Maroc Challenge elkartasun rallyan



UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko administrazio buru Bego Antónek Maroc Challenge rally solidarioan hartu zuen parte. Ibilbidea Nador-en hasi zen eta Saidian bukatu, Marokon. Parte-hartzaileek 2.000 kilometro baino gehiago egin zituzten

mendiak, haranak eta basamortuak zeharkatuz, abentura bila, baina baita marokarrei laguntzeko asmoz ere.

2018ko azaroaren 24an aurreirteera egin zuen Sopelan, eta gu han izan ginen, zorterik onena opatzeko.



## Albiste laburrak

Irailaren 26tik 28ra bitartean, **Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Doktoregoko IV. Jardunaldiak** egin ziren, doktorego programa hauek antolatuta: Ekonomia: Ekonomia Analisisirako Tresnak, Ekonomi Integrazioa, Finantza eta Ekonomia Kuantitatiboak / Quantitative Finance and Economics eta Enpresa Zuzendaritza, Ezagutza eta Berrikuntza.

Azaroaren 30ean, **"Etica en la Investigación en Economía. Evaluación"** (Etika Ekonomiaren arloko Ikerketan. Ebaluazioa) izeneko hitzaldia egin zen. Hizlaria Susi Marcos izan zen, UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzako ikerketako etika teknikaria.

Azaroaren 6an, Pedro Luis Uriartek **"El concierto económico vasco, un tesoro a conocer y a defender"** (Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia ituna, ezagutu eta defendatu beharreko altxorra) izeneko hitzaldia eskaini zuen.

Azaroaren 26an Fakultateko egoitzako Areto Nagusian "Moneta sozialetatik haratago. Ekhilur S. Koop. Proiektua" jardunaldia ospatu zen, Enpresaren Zuzenbidea sailak eta Ekhilur kooperatibak antolatuta.

Bertan, gerturatutako ehun pertsonen aurrean, Ekhilur proiektuaren sustatzaileek honen aurkezpena egin zuten, honen nondik norakoak azalduz, eta moneten funtzionamenduari eta zirkulazioari buruzko gogoeta eginez, eta hauek gizartearen zerbitzura jartzeko beharra azpimarratuz. Honela, Ekhilur proiektuak dirua zirkulatzeko ordainketa-sistema berezia proposatzen du, dirua ez metatzean, bertoko merkataritza eta gizarteari eta inguruari lotutako baloreak sustatzen dituzten enpresak eta elkarteak bultzatzean oinarritutakoa.

*Itziar Villaflañez*

